

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

Onespena ematea zerbitzu askotarako beharginaren lanaldi osoko plaza bat betetzeko prozesuaren oinarriei eta deialdiari

Alkatearen 2021eko otsailaren 8ko ebazpen baten bidez, deialdia egin da Lapuebla de Labarca Udalerako «zerbitzu askotarako behargin» plaza oposizio-lehiaketa bidez betetzeko hautaprobetarako. Plaza hori 2020ko enplegu publikoaren eskaintzan jaso da, eta hauek dira baldintzak:

LEHENENGOA. Onestea 2020ko ekitaldiko enplegu publikoaren eskaintza, xehetasun hauen arabera:

Langile lan kontratudunen zerrenda:

Lanpostuaren izena: zerbitzu askotarako behargina.

Plaza kopurua: sarbide libreko plaza 1.

Kategoria profesionala: Administrazio berezia, zerbitzu bereziak.

Taldea: E / P.T.

Titulua: Eskola ziurtagiria edo baliokidea.

Hizkuntza eskakizuna: 2.

Derrigortasun data: derrigortasun datarik gabe.

Destinoa: Zerbitzu publikoak.

Dedikazioa: lanaldi osoa.

Halaber, adierazitako alkatearen ebazpenaren arabera, deialdi hori arautuko duten oinarriak onetsi dira, zeinak iragarki honen eranskinean jaso baitira.

Deialdia eta haren oinarriak behin betikoak dira administrazio bidean, eta haien aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahalko da, bi hileko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian. Bestela, aurrez, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua aurkez dakioke alkateari, hilabeteko epean, baina ezingo dira bi errekurtsuak aldi berean aurkeztu.

Lapuebla de Labarca, 2021eko otsailaren 8a

Alkatea

MARÍA TERESA CÓRDOBA FERNÁNDEZ

I. ERANSKINA

Udal honen langileen plantillan bete gabe dagoen zerbitzu askotarako behargin plaza bat jabetzan hartzeko oposizio-lehiaketa arautzen duten oinarriak

1. Deialdiaren xedea

Deialdiaren xedea hauxe da: oposizio-lehiaketaren bidez, txanda librean, Lapuebla de Labarcako Udaleko langileen plantillako zerbitzu askotarako behargin plaza bat jabetzan hartzea. Zerbitzu berezietako hainbat lanbidetako langile kategoriakoa da, eta titulazio maila (eskola ziurtagiria) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatuaren Legearen testu bateginak xedapen gehigarrietatik seigarrenean aipatzen dituen profesional taldeena da (antzinako E taldea). Testu hori urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretu bidez onetsi zen. Plazak 2. hizkuntza eskakizuna du esleituta, eta ez du derrigortasun datarik.

Lanaldia: osoa.

Betetzeko era: txanda librea.

Hautagaiak, oposizioko probak gaindituta, plazarik ez badute lortu, zerrenda batean sartuko dira, eta zerrenda hori lanpostu berdinetan edo antzekoetan egon daitezkeen langileen behin-behineko beharrak betetzeko erabil daiteke. Halaber, erretiro partzialen ondorioz sortzen diren txanda kontratuak egiteko erabili ahal izango da. Hala ere, kasu horretan, txanda kontratua izango duen pertsonak Langileen Estatuaren 12.7. artikuluan ezarritakoa bete beharko du (2/2015 LED, urriaren 23koa). Zerrendak lau urteko indarraldia izango du.

2. Lan baldintzak

Lanaldia osoa izango da, eta udalak erabakiko ditu ordutegia eta egutegia, lanpostuaren izaeran eta premia berezietan oinarrituta.

3. Eginkizunak

Gaur egun erabakitako eginkizunen deskribapenean oinarrituz, lanpostuaren eginkizunak orain zehaztuko direnak dira, eta adierazten diren lantokietan gauzatuko dira. Hala eta guztiz ere, eginkizun horiek alda daitezke, udal zerbitzuak hobetzeko badira, edo zentro berriak irekitzen badira:

Lantokiak:

1. Udaletxea.
2. Mediku kontsultategia.
3. Gaztetxea.
4. Udal pilotalekua.
5. Udal igerilekuak.
6. Hilerria.
7. Udal lorategiak eta parkeak.
8. Udal bide eta kaleak.

Lanpostuaren eginkizunak:

1. — Udal eraikin eta instalazioetako mantentze lanak: konponketak eta igeltserotza lanak, trenkadak, kofratze lanak, garaierako lanak, pintatze lanak, eta elektrizitate, iturgintza, zurgintza, soldatze edo sarrailagintza arloko oinarrizko egitekoak.

2. — Bideetako mantentze lanak: hormigoizko horma ataletako edo bide zoruetako konponketak bideetan, junturak zigilatzea, seinaleak jartzea, garbiketako makinak erabiltzea (kale garbigailua, hidrogarbigailua), arekak garbitzea, fatxadak eta hiri altzariak garbitzea, kartelak kentzea, pintadak ezabatzea...

3. — Lorategietako mantentze lanak: landaketa, ongarritzea, ureztatzea, belarra moztea, in-ausketa eta mozketak egitea, makina espezifikoak erabiltzea, eta iturriak eta ureztatze sistemak programatzea eta haien mantentze lanak egitea.

4. — Ibilgailuak eta makinak gidatzea eta erabiltzea: orga jasotzailea, iraulki kamioia edo beso teleskopikoduna, plataforma jasotzailea eta abar, agindutako lanak egiteko edo zama garraiatu eta manipulatzeko. Ibilgailuen eta makinaren mantentze lanak eta oinarrizko garbiketa: koipeztatu, garbitu edo mailak egiaztatzea, erabiltzen duen lan materialaren gaineko ardura hartuz.

5. — Karpak, agertokiak, hesiak, aldamiok eta bestelako elementu eramangarri edo aldi baterakoak jarri eta kentzea. Askotariko lanak, kultura, kirol edo jaietako jarduerekin loturikoak.

6. — Materialak jaso, kargatu eta deskargatzea, eta materialok biltzeko lanak egitea.

7. — Aparteko egoeretan (elurteak, izozteak, denboraleak, uholdeak, suteak, zuhaitz erorke-tak...) beharrezko diren lanak egitea.

8. — Deskribatutako eginkizunez gain, bere gaitasun profesionala kontuan hartuz, eskatzen dizkioten beste eginkizun batzuk ere egitea, Lapuebla de Labarcako Udalak ezarritako helburuak betetze aldera.

4. Izangaien baldintzak

Hautaketa prozesuan parte hartzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Aldez aurretik dagokion eskaera egitea.

b) Espainiako edo Europar Batasuneko estatu kideetako baten nazionalitatea izatea, edo Europar Batasunak egindako eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunen aplikazio eremuaren barruan egotea, langileen zirkulazio askea aplikatzen bada.

Espainiarren nahiz Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako herritarren ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, haien nazionalitatea gorabehera, baita ezkontide bataren zein bestearen ondorengoek ere, baldin eta ezkontideak legez bananduta ez badaude, eta ondorengo horiek hogeita bat urte baino gutxiago badituzte edo adin horretatik gorakoak izanik mendekoak badira.

Aurreko paragrafoetan aipatutako pertsonen gain, Espainiako Estatuan legezko bizilekua duten atzerriko pertsonak ere aurkez daitezke. Hautatzen badituzte, kontratatzeko eskatzen diren administrazio baldintzak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute.

c) 16 urte beteta izatea eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, eta nahitaez erretiratzeko gehieneko adina ez gainditzea.

d) Autonomia erkidegoetako edozein administrazio publikoren, organo konstituzionalen edo estatutu organoren zerbitzutik bereizita ez egotea, eta ez egotea ebazpen judizialaren bidez desgaituta enplegu edo kargu publikorako, funtzionario kidegora edo eskalara sartzeko, edo desgaitu duten langile lan kontratudunaren lanpostuan egindakoen antzeko eginkizunetarako. Beste estatu bateko nazionala izanez gero, ez egotea desgaituta edo estatu horretan aurretik adierazitako baldintza berdinetan enplegu publikorako sarbidea eragotziko dion egoera balio-kide batean.

e) Kasu askotan, adingabeak egon daitezkeen lantokietan lan egingo duela kontuan hartuz, hautatutako izangaiak sexu delituengatik aurrekari penalik ez duela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du, Adingabearen Babes Juridikoaren urtarilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5. artikulua, Kode Zibila partzialki aldatzen duena, eta Prozedura Zibilaren Legea betez.

f) Lanpostuaren berezko eginkizunak behar bezala betetzea eragozten duen gaixotasun edo akats fisiko nahiz psikikorik ez izatea. Hori dagokion osasun azterketaren bidez egiaztatu beharko da, plantillako langile lan kontratudun finko izendatu aurretik.

g) Gutxienez, eskola ziurtagiria edo horren baliokidea den titulu bat izatea, legezko arautegiaren arabera, edo aipatutako ziurtagiria edo titulua lortzeko eskubideak ordainduta izatea. Atzerriko tituluak badira, homologazioa egiaztatzen duen ziurtagiria beharko da.

h) Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean ezarritakoaren arabera, bateraezintasuneko legezko kasuren batean ez egotea. Kargu publiko bat edo bateraezina den jarduera pribatu bat duten hautagaiek, deialdi honen lanpostuan lanean hasi aurretik, dagokion aukera egin ahalko dute, aipatutako legea kontuan hartuz.

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan aurreko baldintza guztiak bete beharko dira, aurreko h) puntuan ezarritakoa izan ezik. Halaber, hautaketa prozeduran zehar eta izendatu arte baldintza guztiak bete beharko dira.

5. Eskabideak

Eskabideak Lapuebla de Labarcako Udaleko bulego orokorretan eskuragai egongo dira, eta III. eranskinen jasotzen den eredu normalizatuarekin bat etorriko dira.

Oposizio-lehiaketan parte hartzea eskatzeko eskabide normalizatuak Lapuebla de Labarcako Udaleko alkate-lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta baldintza hauek bete beharko dituzte onartuak izateko:

a) Hautagaiek deialdiaren laugarren oinarrian adierazitako baldintza guztiak betetzen dituztela adieraziko dute. Betekizunak bete behar dira eskabideak aurkezteko epea bukatzen denerako.

b) Eskabideetan agiri hauek erantsi beharko dira:

– NANen fotokopia konpultsatua, edo horren baliokidea atzeritarren kasuan, eta deialdian parte hartzeko eskatzen den titulua, edo haren fotokopia konpultsatua.

– Alegatutako merezimenduen egiaztatgiriaren fotokopia konpultsatua.

Lapuebla de Labarcako Udaleko bulegoetan konpultsatu beharko dira, edo eskumena duen fede emailaren bidez, jatorrizko agiria eta kopia aurkeztuz.

Behar bezala betetako eskabideak Lapuebla de Labarcako Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, hogei egun balioduneko epean, deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Correosen bulegoetan aurkezten diren eskabideak gutun azal ireki batean aurkeztu beharko dira, posta bulegoko funtzionarioek data eta zigilua jar diezaioten, eskabideak aurkezteko epearen barruan, ziurtatu aurretik. Horrela bakarrik hartuko da eskabideak Correosen bulegoan utzi ziren egun berean sartu direla Lapuebla de Labarcako Udaleko Erregistro Orokorrean. Eskabideak zigitatu behar dira.

6. Izangaiak onartzea

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda onetsiko du alkateak. Zerrenda hori iragarki taulan eta udaleko web orrian ikusgai jarriko da. Horrez gain, ALHAOn argitaratuko da. Hamar egun balioduneko epea emango da baztertea eragin duten akatsak edo omisioak zuzentzeko, edo egokitzen jotzen diren erreklamazioak aurkezteko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda behin betiko zerrenda bihurtuko da. Baldin baleude, onartu edo baztertuko dira, beste ebazpen baten bidez. Horrek behin betiko zerrendak onetsiko ditu eta aipatutako hedabideetan argitaratuko da.

Ebazpen horren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahalko da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hileko epean, onartutako eta baztertutakoen zerrenda ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Dena den, egokitzat jotzen den beste edozein errekurtsu ere aurkeztu ahalko da.

Horren aurretik, egun beretik hilabeteko epean, aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahalko zaio alkateari. Dena den, ezingo dira bi errekurtsuak aldi berean egin.

Behin betiko zerrendarekin batera, epaimahai kalifikatzaileko kideen izena eta oposizioaren lehen ariketa non eta noiz egingo den, edo hala badagokio, zer egunetan emango den informazio hori argitaratuko da. Epaimahai kalifikatzaileak hurrengo ariketei buruzko informazioa emango du udaleko ediktuen taulan eta web orrian: www.lapuebladelabarca.eus.

7. Epaimahai kalifikatzailea

Deitutako hautaketa prozesuaren epaimahai kalifikatzailea Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 31. artikuluan eta Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatuaren Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretuaren 60. artikuluan ezarritakoaren arabera eratuko da. Lehendakari batek, idazkari batek eta lau kidek osatuko dute.

Euskararen ezagutza baloratzeko, IVA Pek proposatutako beste kide bat egongo da epaimahai kalifikatzailean, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legeak 99.2. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Eratzeko, epaimahaiak, lehendakariak deialdia egin ondoren, boto eskubidea duten kideen gehiengo osoa, lehendakaria eta idazkaria, titularrak edo ordezkariak, bertaratzea eskatuko du, baliotasunez jarduteko.

Epaimahaiak bertaratutako kideen botoen gehiengoaren bidez hartuko ditu erabakiak. Epaimahaiko kide guztiek hitza eta botoa izango dute, idazkariak izan ezik; izan ere, ez du boto eskubiderik izango. Berdinketarik izanez gero, epaimahaiko lehendakariaren botoak erabakiko du.

Epaimahaiak arloko adituek parte hartzea eska dezake, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 31.4. artikuluan arabera, oposizio-lehiaketako prozesuaren edozein alderdiri buruzko iritzi tekniko profesionala eman dezaten. Pertsona horiek ez dute boto eskubiderik izango.

Epaimahai kalifikatzaileko kideek ezingo dute parte hartu Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan ezarritako inguruabarrak gertatzen badira, eta alkateari jakinarazi beharko diote. Hautagaiek epaimahaiko kideak ezetsi ahalko dituzte, aipatutako legearen 24. artikuluan ezarritakoaren arabera, aurretik aipatutako inguruabarrak gertatzen direla uste badute.

Epaimahaiak beharrezko neurriak har ditzake deialdi honetan ezartzen ez den guztian hautaketa sistema garatzeko, eta aplikatzeari eta interpretatzeari dagokienez sortzen diren auzi guztietan erabakiko du.

Epaimahai kalifikatzailea, deialdiaren eta haren oinarrien barruan, ariketen edukiaren, ebaluazio irizpideen eta ariketen garapenaren inguruan sortzen den edozein gairen gainean erabakitze eskumena duen organoa da. Era berean, epaimahaiak bere helburuak betetzeko beharrezkotzat jotzen dituen erabakiak hartuko ditu, betiere indarreko legeek eskumen hori beste organo batzuei ez badiete eman.

Epaimahai kalifikatzaileak hautaketa prozesuaren edozein unetan hautagai batek deialdian parte hartzeko ezarritako baldintzak ez dituela betetzen jakiten badu, interesdunari entzun eta gero baztertzea proposatuko dio organo eskudunari, eta eskaeren jasota utzi zituen akatsak edo faltsutasunak adieraziko ditu.

8. Oposizio aldia

Hautagaiak aukeratzeko prozedura oposizio-lehiaketa izango da, txanda librean.

Lehendabizi, oposizio aldia egingo da.

Deialdi honetako ariketa guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan egin ahalko dira. Epaimahaiak proba bakoitzean baloratuko du zein den metodorik egokiena hautagaien anonimotasuna eta konfidentzialtasuna bermatzeko, eta beharrezko neurriak hartuko ditu, metodo hori aplikatu dadin bai probak egitean, bai zuzentzean.

Lehen ariketarako deialdia eta onartutako eta baztertutakoen behin betiko zerrenda ALHAOn eta udalaren iragarki taulan argitaratuko dira. Horrez gain, azterketa noiz, zer ordutan eta non izango den adieraziko da.

Hurrengo ariketen deialdia eta epaimahaiaren erabakiak Lapuebla de Labarca Udalaren iragarki taulan eta www.lapuebladelabarca.eus web orrian argitaratuko dira.

Proba bakoitza egin baino lehen, webgunean jarraibideen orria argitaratuko da. Bertan, epaimahaiak azterketetan jarraituko dituen irizpideak adieraziko dira, besteak beste (galdera kopurua, oker erantzundakoen zigorra edo zigorrik eza, probaren iraupena...). Aukerako erantzunak dituzten proben kasuan, proba espezifikoa amaitzen denetik gehienez ere 48 orduko epean argitaratuko dira kasuan kasuko probak zuzentzeko txantiloiak.

Hautagaiak NANA, gidabaimena edo indarreko pasaportea eraman beharko dute proba guztietara (hautagaiaren argazkia izan behar dute), epaimahaiak edozein unetan eskatu ahal dielako. Eskatutako agiria aurkezten ez duena hautaketa prozesutik kanpo geratuko da.

Epaimahaiak proben ordena alda dezake. Halaber, probak egun berean egitea erabaki ahalko du. Kasu horretan, egiten diren heinean ebaluatuko dira. Hautagaiak txandaka dei daitezke, eta egun desberdinetan ere bai.

Ariketa bakoitzerako behin bakarrik deituko dira hautagaiak, eta aurkezten ez dena hautaketa prozesutik kanpo geratuko da, behar bezala egiaztatutako ezinbestezko kasuetan eta epaimahaiak libreki aintzat hartutako kasuetan izan ezik.

Oposizio aldiaren idatzizko ariketa teoriko bat eta ariketa praktikoa bat egongo dira. Hautagai guztiek nahitaez egin behar dituzte, eta baztertzailak dira.

Oposizio aldiaren 50 puntu lortu ahal izango dira gehienez, eta bi ariketa izango dira.

Lehenengoan, epaimahaiak egokitzen jotzen dituen zenbait galderari erantzun beharko zaie. Galderak oinarriari erantsitako II. eranskinetako gaiei buruzkoak izango dira. Ariketa horretan gehienez 25 puntu lortu ahal izango dira. Galderak aukerako erantzunak izango dituzte (test modukoa). Epaimahaiak ariketaren egun berean erabakiko du erantzun okerrak zigortzen diren ala ez, eta zenbatean. Azterketa hasi aurretik emango du horren berri. Zati horretan, gehienez, 25 puntu atera ahalko dira, eta gutxienez, 12,5 puntu lortu beharko dira.

Bigarrenetan, epaimahaiak diseinatutako proba praktikoa bat edo batzuk erantzun edo egin beharko dira. Proba horiek oinarri hauetan adierazitako lanpostuaren eginkizunei eta proposatutako gai zerrendari buruzkoak izango dira. Proba horietan, baliteke idatziz erantzun behar izatea galdera praktikoei, erantzun laburrekin, edo proba praktikoa egin behar izatea, baita makinak erabiliz ere, edo biak. Zati horretan, gehienez, 25 puntu atera ahalko dira, eta gutxienez, 12,5 puntu lortu beharko dira.

Ariketa bakoitzaren emaitzak ediktuen taulan eta udalaren web orrian argitaratuko dira. Proba amaitutakoan, epaimahaiak horren behin-behineko emaitzak argitaratuko ditu, ahalik eta lasterren, eta 10 egun baldioduneko epea ezarriko du erreklamazioak egiteko. Epe hori bukatzen denean eta, egonez gero, aurkeztu diren erreklamazioak ebazten direnean, epaimahaiak probaren behin betiko emaitzak argitaratuko ditu.

— Hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko probak (nahitaezkoak ez direnak).

Azterketa teorikoa eta praktikoa gainditu eta eskaera orrian hizkuntza eskakizunaren azterketara aurkeztuko direla eta zer hizkuntza eskakizunetara (1. HE edo 2. HE) aurkeztuko diren adierazi duten hautagaiak euskararen ezagutza egiaztatzeko probetara aurkeztu ahalgo dira. Proba noiz egingo den IVAPek ezarritako egutegiaren arabera erabakiko da. Ez da maila handiagoetarako probarik egingo.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari (IVAP) dagokio euskararen ezagutza egiaztatzeko proben edukia eta modua zehaztea. Epaimahaiak erakunde horri eskatuko dio dagozkion probak egitea. Informazio gisa, proba horiek bi zatitan egingo dira: alde batetik, idatzizko zatia, bestetik, ahozkoa, idatzizkoa zuzendu eta gero.

Ariketaren emaitzak ediktuen taulan eta udalaren web orrian argitaratuko dira. Probak amaitutakoan, epaimahaiak horien behin-behineko emaitzak argitaratuko ditu, ahalik eta lasterren, eta 10 egun balioduneko epea ezarriko du erreklamazioak egiteko. Epe hori bukatzen denean eta, egonez gero, aurkeztu diren erreklamazioak ebazten direnean, epaimahaiak probaren behin betiko emaitzak argitaratuko ditu.

9. Lehiaketa aldia

Oposizio aldia gainditzen duten izangaiak lehiaketa aldira pasako dira. Lehiaketa aldian 50 puntu lortu ahal izango dira gehienez.

Alegatzen diren merezimenduak kontuan hartzeko data eskaerak aurkezteko azken eguna izango da, euskara mailaren probak egitea eskatzen bada eta haiek gainditzen badira salbu.

Horiek amaitutakoan, hautagaien batek eskatu badu, edo azterketa teorikoa eta praktikoa egindakoan, bestela, epaimahaiak eskaerarekin batera erantsitako merezimenduak baloratuko ditu, baremo honen arabera:

A) Lan esperientzia: merezimendu horri gehienez ere 20 puntu emango zaizkio, honako baremo honen arabera:

Administrazio publikoan edo sektore pribatuan egindako zerbitzuak, zerbitzu askotarako behargin lanpostuetan (edo antzeko izena dutenetan): 0,5 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko, baldin lanaldi osoko zerbitzuak badira. Lanaldi partzialekoak badira, koefiziente zuzentzailea aplikatuko zaie dagokien proportzioan. Ez dira aintzat hartuko hilabete baino denbora tarte laburragoak, ez eta aldi baterako langileen lanpostuan egindako zerbitzuak, prestakuntza praktikak eta beka ere.

Egiaztatzeko modua: administrazio publikoetan emandako zerbitzuak egiaztatzeko, ziurtagiria aurkeztu beharko da, eta zerbitzuaren iraupena eta betetako lanpostua zehaztu beharko dira (Lapuebla de Labarcako Udalean emandako zerbitzuak udalak berak egiaztatuko ditu ofizioz, baldin eskaeran adierazi badira). Sektore pribatuan emandako zerbitzuak egiaztatzeko, kasuan kasuko zerbitzuak jaso dituen enpresaren ziurtagiria edo lan kontratua aurkeztuko da, eta betetako lanpostuaren eginkizunak xehetasunez jaso beharko dira bi kasuetan. Gizarte Segurantzak egindako laneko bizitzaren agiria ere aurkeztu beharko da. Hautagaiak egiaztatu beharko dute alegatutako lan esperientzia deitutako lanpostuaren kategorian bertan edo antzekoan eman dela eta eginkizun berberak edo antzekoak egin dituela. Horrez gain, esperientziaren iraupena egiaztatuko beharko dute.

B) Prestakuntza: Gehienez, 5 puntu.

Puntu bat emango da 10 ordutik gorako prestakuntza ikastaroak edo lanbide hobekuntzako ikastaroak gaindituta izateagatik, betiere bete nahi den plaza edo lanpostuarekin lotura badute. Soilik baloratuko dira erakundeek, zentro publikoek edo gainerako prestakuntza zentro ofizialek, edo etengabeko prestakuntzarako planak egiten lankidetzan aritzen diren erakunde eta instituzioek antolatuta edo homologatzen dituztenak (salbu laneko arriskuak prebenitzeko ikastaroak, D) apartatuan baloratuak, edo C) apartatuan aipatutako eta baloratutako ikastaroak).

Merezimenduak egiaztatzeko, kasuan kasuko agiri profesionala edo ikastaroaren titulua edo ikastarora joan eta gainditu izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, jatorrizko agiria edo kopia erkatua edo konpultsatua, eta partekatutako irakasgaiak eta eskola ordu kopurua adierazi beharko dira.

C) Baimen ofizialak, gidabaimenak eta makinak erabiltzeko baimenak.

B kategoriako gidabaimena edukitzeagatik: 5 puntu.

Produktu fitosanitarioen erabiltzaile txartela izateagatik (gehienez 5 puntu): Oinarrizko maila: 2,5 puntu. Maila kualifikatua: 5 puntu.

Bata zein bestea egiaztatzeko, baimen edo txartel ofizialaren kopia konpultsatua aurkeztu beharko da.

Zama aurrean garraiatzen duen orga jasotzailearen operadore txartela izatea: 5 puntu.

Honako hauetakoren baten operadore txartela izateagatik: transpaleta, pilotzaileak edo plataforma jasotzaileak, C1 gidabaimena, lorezaintzako eta basogintzako makinak operadore ikastaroak, beso kamioia edo kale garbigailu industrialak edo bideetakoak: 2,5 puntu txartel edo ikastaro bakoitzeko; gehienez, 5 puntu.

Merezimenduak egiaztatzeko, kasuan kasuko agiri profesionala edo ikastaroaren titulua edo ikastarora joan eta gainditu izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, jatorrizko agiria edo kopia erkatua edo konpultsatua, eta partekatutako irakasgaiak eta eskola ordu kopurua adierazi beharko dira.

D) Lan arriskuen prebentzioaren gaineko prestakuntza: gehienez, 5 puntu lortu ahal izango dira.

Lan arriskuen prebentzioaren gaineko berriazko prestakuntza ikastaroak gainditu izana baloratuko da. Prestakuntza hori prebentzio zerbitzu batek edo gai horretan berriazko prestakuntza jarduerak garatzeko gaitasuna duen erakunde publiko edo pribatu batek eman beharko du:

Gutxienez 30 orduko iraupena duen ikastaro bakoitzeko: 2 puntu.

Gutxienez 50 orduko iraupena duen ikastaro bakoitzeko: 3 puntu.

Gutxienez 80 orduko iraupena duen ikastaro bakoitzeko: 5 puntu.

Merezimenduak egiaztatzeko, kasuan kasuko agiri profesionala edo ikastaroaren titulua edo ikastarora joan eta gainditu izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, jatorrizko agiria edo kopia erkatua edo konpultsatua, eta partekatutako irakasgaiak eta eskola ordu kopurua adierazi beharko dira.

E) Euskara.

a) 1. hizkuntza eskakizuna: 7,5 puntu. 2. hizkuntza eskakizuna (edo hortik gorakoa): 15 puntu.

Egiaztapena: oinarri hauetan adierazitako euskara probak gaindituz; IVAPen ziurtagiriaren bidez, dagokion hizkuntza eskakizuna duela egiaztatzen duena (administrazio publikoaren zerbitzura langile gisa lan egin ez duten hautagaiak beste hautaketa prozesu batzuetan egiaztatutako 1. hizkuntza eskakizunaren ziurtagiriek indarrean egon beharko dute eskaera epea amaitzen den egunean); edo beste edozein agiri edo titulu baliokideren bidez (apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 41. artikulua, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretua eta apirilaren 3ko 4/2012 Dekretua).

10. Epaimahaiaren proposamena

Hautaketa prozesuaren azken kalifikazioa oposizio aldiko ariketetan lortutako puntuazioen batura izango da, eta horri, lehiaketa aldian lortutakoa gehituko zaio. Horrela, prozesua gainditu duten pertsonen izena eta puntuazioa argitaratuko ditu epaimahaiak ediktuen taulan eta udalaren web orrian.

Epaimahaiaren iritziz lanpostua betetzeko gutxieneko baldintzak betetzen dituen hautagairik ez badago, plaza bete gabe gera daiteke.

Epaimahaiak ezingo du inola ere proposatu deialdian eskaintzen diren lanpostuak baino hautatu gehiago.

Epaimahaiak alkateari bidaliko dio akta, izendatzeko proposamena egin dezan.

Puntuazioan berdinketa balego (oposizio eta lehiaketa aldietako puntuak batutakoan), azterketa teorikoaren zati teorikoan lortutako puntuazioa lehenetsiko da; eta hala ere berdinketa badago, praktikoan lortutako puntuazioaren arabera erabakiko da.

Aktan, proba baztertzalea gainditu duten hautagaien zerrenda ere jasoko da, puntuazio ordenaren arabera, deitutako plaza kopurua gainditzen bada ere. Hautagaiak lan poltsa bat osatuko dute, lortutako puntuazioari jarraituz, eta behin-behineko beharrak asetzeko erabiliko da, oinarrien lehen puntuan ezarritakoaren arabera.

11. Agirien aurkezpena eta izendapena

Proposatutako pertsonak oinarrietan oposizio-lehiaketan parte hartzeko eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten jatorrizko agiriak aurkeztu beharko ditu, gainditu dutenen zerrenda argitaratu eta 20 egun balioduneko epean.

Proposatutako pertsonak eskatutako agiriak ez baditu aurkezten adierazitako epean, ezinbesteko kasuetan izan ezik, edo eskatutako baldintzak betetzen dituela ez badu egiaztatzen, ezingo da izendatu eta jarduera guztiak baliorik gabe geratuko dira. Kasu horretan, organo eskudunak, lehiaketa gaindituta, azken kalifikazioaren hurrenkeran hurrengo postuan dagoen pertsona edo pertsonak proposatuko ditu. Modu berean jokatu da hautagaiak probaldia ez badu gainditzen.

12. Probaldia

Izendatu ondoren, jakinarazten diotenetik 20 egun balioduneko epean lanean hasi beharko du hautatutako pertsonak. Justifikatuta dauden arrazoiengatik epe hori luzatu ahalko du alkateak.

Hautagaiak probaldian duen lanpostuari dagokion ordainsaria jasoko du.

Probaldia hiru hilekoa izango da, eta nahitaezkoa eta baztertzalea izango da.

Probaldia amaituta, dagokion ataleko arduradunak probaldian egondako langileari buruzko txostena egingo du, eta hor, alderdi hauek baloratuko dira: lan gaitasunari eta errendimendu profesionalari dagokionez agertutako gaitasunak eta trebetasunak, deialdiko gaitan eskatutako ezagutza teoriko-praktikoen aplikazio praktikoa, erantzukizuna eta eraginkortasuna, ikasteko interesea, prestasuna eta ekimena. Era berean, lantaldean integratzeko eta barruko nahiz kanpoko harremanetara egokitzeko gaitasuna ere aintzat hartuko da.

Txosten hori hautaketa prozesuaren epaimahai kalifikatzaileari bidaliko zaio, eta behin irakurrita eta inguruabarrak aztertuta, probaldia gainditu duen ala ez erabakiko du.

Probaldia ez badu gainditzen, alkateak ebazpen arrazoitua emango du.

Kasu horretan, edo proposatutako hautagaiak uko egiten badu, organo eskudunak aurreko oinarrian adierazitako zerrenda osagarrian hurrengo postuan dagoen hautagaia kontratatuko du, oinarri horretan eskatzen zaizkion agiriak aurkeztutakoan.

Inguruabar bera berriz gertatzen bada, modu berean jokatu da, zerrenda osagarria amaitu arte.

Udalak adierazten duen prebentzio sozietateak azterketa medikoa eginda, gainditzen badu, proposatutako hautagaia langile lan kontratudun finko izendatuko dute. Horrela, izendapena ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, gehienez ere hilabeteko epean lan kontratua sinatu beharko du. Adierazitako epean justifikatutako arrazoirik gabe ez badu sinatzen, lanpostuari uko egiten diola ulertuko da. Horrenbestez, lanposturako eskubidea galduko du eta hurrengo hautagaia praktiketan kontratatuko da.

Modu berean jokatu da azterketa medikoa ez badu gainditzen. Hautagaiak onartzen dute azterketa medikoaren txostena, ohorerako eskubidean eragiten badu salbu, haren arabera baztertu den hautagaiaren erreklamazioa aztertzen duen organoaren eskura jartzea.

13. Lan poltsa

Hautaketa prozesua amaitutakoan, oposizio aldia gainditu duten baina langile izendatu ez dituzten hautagaiek lan poltsa bat eratuko dute, lortutako azken puntuazio hurrenkerari jarraituz. Lan poltsa hori udalean gerta daitezkeen aldi baterako langile beharrei erantzuteko erabiliko da, eta Lapuebla de Labarcako Udalak ezarrita duen arautegiaren arabera kudeatuko da.

14. Datu pertsonalak babestea

Hautagaiei eskatzen zaizkien datu pertsonalak fitxategi batean gordeko dira, eta tratamendu bat emango zaie hautaketa prozesua kudeatzeko. Horrela, gaur egun indarrean dagoen datu pertsonalen babeseko legea aplikatuko da fitxategian. Beraz, hautagaiek datuak ikusteko, ezabatzeko, aurka egiteko eta zuzentzeko eskubidea baliatu ahalko dute udalean.

Bestalde, identifikazio datuak eta hizkuntza eskakizunak edo baliokideak egiaztatzeko datuak IVAPi emango zaizkio, alegatutako egiaztagirari buruzko datuak egiazta ditzan hizkuntza eskakizunen egiaztagirien erregistroan, eta hautaketa prozesuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko ariketa egoki prestatu eta egiteko, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 99.2. artikuluan ezartzen den moduan.

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan, ekainaren 11ko 994/1999 Errege Dekretuan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan ezarritako baldintzen arabera egingo da datu pertsonalen tratamendua.

Azken arau horren 13. artikulua ezarritakoaren arabera, jakinarazten da datuen arduraduna Lapuebla de Labarcako Udala dela, haren legezko ordezkaria, alkatea, eta administrazio horretako datuen babesaren arduraduna, idazkaria.

Hautaketa prozesu honetan, haren proba edo ariketetan parte hartzearen ondorioz, izangaiak eskabidean jasotzen dituen datu pertsonalak tratatzeko baimena ematen du, aldizkari ofizialetan, iragarki taulan, web orrian, eta oro har, hautaketa prozesuaren behin betiko emaitzak edo emaitza partzialak jakinarazteko erabiltzen den edozein baliabidetan argitara daitezzen. Halaber, IVAPek euskararen ezagutza maila egiaztatzeko erabili ahalko ditu. Izangaiak, oro har, epaimahaiak hautaketa prozesuaren probak zuzen prestatzeko eta gauzatzeko beharrezkoak diren datuak egiaztatzeko baimena ere ematen du. Hautaketa prozesu honek publikotasun printzipioari jarraitzen dionez, eskaera ez da onartuko pertsonak bere datuak emateko baimenik ez badu ematen, adierazitako edukiarekin eta helburuetarako.

Datuak espedientea izapidetzeko beharrezkoa den denboran gordeko dira, eta gutxienez, amaiera ematen dion ekintza irmoa izan arte.

15. Gorabeherak

Epaimahai kalifikatzaileak sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta oposizioaren garapen onaz arduratzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzeko eskumena du, oinarri hauetan eta aplikatzekoa den arautegi osagarrian ezartzen ez den guztian.

16. Aurkaratzeak

Epaimahaiaren erabakien, hots, oposizioaren eta merituak baloratzeko aldietan emandako puntuazioen aurka, azterketari eta puntuazioei buruzko informazioa eskatu ahalko da, erabaki horiek argitaratu eta bi egun balioduneko epean. Epe hori igarotakoan, hiru egun baliodun egongo dira alegazioak aurkezteko.

Oinarri horien eta epaimahaiaren jarduketan ondorioz sortzen diren deialdi, oinarri eta administrazio egintzen aurka egin ahalko dute interesdunek, Administrazio Publikoen eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legean ezarritako epean eta moduan.

II. ERANSKINA

GAI ZERRENDA

Gai orokorrak

1. gaia. Espainiako 1978ko Konstituzioa. Egitura eta edukia. Estatuaren lurralde antolaketa Konstituzioan, tokiko esparruan: sarrera, toki administrazioa: probintzia eta udalerrria.

2. gaia. Administrazio publikoen zerbitzura dauden langileak: tipologia. Administrazio publikoen zerbitzuko langileen eskubideak eta betebeharrak. Ordainsariak. Negoziazio kolektiboa. Bateriaezintasunak. Diziplina araubidea.

Gai espezifikoak

3. gaia. Aritmetikako oinarrizko nozioak, kalkulu eragiketa nagusiak: oinarrizko eragiketarik zenbaki osoekin, zatikiekin eta hamartarrekin. Lehen mailako ekuazioak ebaztea. Proporzionaltasun zuzena. Sistema metriko hamartarra.

4. gaia. Segurtasuna eta osasuna mantentze lanetan. Makinak eta materialak erabiltzeko neurri bereziak. Babes neurriak. Norbera babesteko ekipamenduak. Aldamioak eta eraispenak. Eraikuntzako materialak eta lanabesak.

5. gaia. Igeltserotza obrak: hormak, eraikinen barrualdeko zatiketarik, junturak, blokeko itxiturak, estaldura jarraituak, zarpiatuak, emokadurak, lohizatzeak, pinturak.

6. gaia. Elektrizitatea: oinarrizko kontzeptuak. Energia elektrikoaren garraioa, eroaleak eta isolagailuak. Lanabesak, matxurak eta konponketak. Argiteria publikoaren instalazioak.

7. gaia. Iturgintza: lanabesak, matxurak eta konponketak. Arotz lanak: lanabesak, zurgintzako oinarrizko teknikak eta mantentze lan eta konponketa ohikoenak. Apalategiak.

8. gaia. Eraikin eta lokaletako pinturari buruzko kontzeptu orokorrak. Pinturak emateko eta kentzeko lanabesak: garbiketarik eta kontserbazioa. Akats eta konponketa ohikoenak.

9. gaia. Lorezaintza: kontzeptu orokorrak eta lorezainaren eginkizunak. Landareak. Lorezaintza lanetarako lanabes erabilgarriak. Landareak zaintzeko teknika nagusiak. Landareen gaixotasunak.

10. gaia. Hilerria (Euskal Autonomia Erkidegoko hilotzen sanitate alderdiei buruzko erregelamendua): Definizioak. Hilotzen sanitate sailkapena. Hilotzen eta gorpuzkien azken buruko destinoa. Hilkutxak. Ehorzketa. Desehorzketa eta birrehorzketa. Hilerriak.

Oharra: Probak prestatzen laguntzeko bibliografia:

– Atal orokorrerako: Administrazio kidegora sartzeko IVAPen gai zerrenda, URL honetan eskuragarri dagoena:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/bibl_digital/es_documento/adjuntos/cuerpo_administrativo.pdf.

– 4. gairako, obra eta zerbitzuetako peoiaren gai zerrenda osoa eskuragarri dago, hemen: <http://tublogdeoposiciones.com/2010/10/28/temario-de-oposiciones-para-peon-de-obra/>.

– 10. gairako, Euskal Autonomia Erkidegoko hilotzen sanitate alderdiei buruzko erregelamendua.

– Eta gainerakoetarako: Peones y Operarios de Servicios Múltiples, bi liburuki; gai zerrenda, testak eta kasu praktikoak. 2010eko argit., CEP SL argitaletxea, Humanes de Madrid (Madril).

Oharra: erreferentzia hau gai zerrendako gai espezifikoak prestatzen laguntzeko proposatzen da, baina epaimahaiak askatasuna du gai bakoitzean eska daitekeen edukia erabakitzeko, ariketa teorikoaren eta praktikoaren galderak egiteko edo puntuazio irizpideak ezartzeko.

III. ERANSKINA

Eskaera orria

Oposizio-lehiaketa, Lapuebla de Labarcako Udaleko zerbitzu askotarako behargin plaza bat betetzeko.

1. Datu pertsonalak:

Izena:.....

1. abizena:.....

2. abizena:.....

NANa:.....

Jaioteguna:.....

Telefonoa:.....

Helbidea:.....

Udalerrria:.....

Posta kodea:.....

2. Prestakuntza:

Deialdian eskatzen den titulu akademikoa:.....

3. Lehiaketa aldia:

Zerbitzu askotarako behargin gisa edo antzeko lanpostu batean izandako esperientzia:

HASIERA DATA	LANPOSTUA UTZI ZEN EGUNA	ADMINISTRAZIO EDO ENPRESA ENPLEGATZAILEA	BETETAKO LANPOSTUA	LANALDIAREN EHUNEKOA

Egiaztatutako hizkuntza eskakizuna:

4. Euskara maila egiaztatzeko proba egin nahi duzu? BAI / EZ (marratu ez dagokiona). Maila: 1. HE / 2. HE (marratu ez dagokiona).

5. Aukeratu zer hizkuntzatan egin nahi dituzun ariketak: euskaraz / gaztelaniaz (marratu ez dagokiona).

6. Erantsitako agiriak:

– NANen fotokopia konpultsatua.

– Eskatutako tituluaren fotokopia konpultsatua.

– Hizkuntza eskakizuna egiaztatzen duen ziurtagiri edo tituluaren fotokopia konpultsatua.

– Lanbide esperientziaren egiaztagiria.

– Administrazio publikoaren ziurtagiria.

– Erakunde pribatuaren ziurtagiria.

- Lan kontratuak eta luzapenak.
- Lan biziak.
- Beste agiri batzuk (zehaztu).

Behean sinatzen duenak hautaketa prozesuan onartzea eskatzen du, eta eskaeran agertzen diren datuak egiazkoak direla eta deialdiaren oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen dituela aitortzen du. Horrez gain, eskatzen dizkiotenean, jatorrizko agiriak aurkeztuko dituela adierazten du.

Bestalde, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, hauxe adierazten du:

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduak 13. artikuluan eta Datuak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoak 5. artikuluan eskatutako baldintzak jakinarazi dizkiote.

Eskabidean jasotzen diren datu pertsonalak tratatzeko baimena ematen du, aldikari ofizialetan, iragarki taulan, web orrian, eta oro har, hautaketa prozesuaren behin betiko emaitzak edo emaitza partzialak jakinarazteko erabiltzen den edozein baliabidetan argitara daitezen. Halaber, epaimahaiak hautaketa prozesuaren probak zuzen prestatzeko eta gauzatzeko beharrezkoak diren datuak egiaztatzeko baimena ere ematen du.

Bere datu pertsonalak eta hizkuntza eskakizunak edo baliokideak egiaztatzeko datuak IVAPi lagatzeko baimena ematen du, hizkuntza eskakizunen egiaztagirien erregistroan alegatutako egiaztagiriri buruzko datuak egiazta ditzan, eta hautaketa prozesuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko ariketa egoki prestatu eta egiteko, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 99.2. artikuluan ezartzen den moduan.

Data eta sinadura.

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALEKO (ARABA) ALKATE-LEHENDAKARIA.